

2017KO URRIAREN 30EAN BATZARRAK EGIN ZUEN OHIKO BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxeko pleno aretoan egin du bilera 2017ko urriaren 30ean, arratsaldeko 19:10etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ABALTZISKETAKO UDALA (% 0,54): kepa Gorostidi Garmendia
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): Carlos Ugartemendia Leunda
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Agirrezabala
ALKIZAKO UDALA (%0,61): Jon Umerez Urrezola
ANOETAKO UDALA (%3,09): Aratz Luisa Urkola
ASTEASUKO UDALA (%2,49): Pili Legarra Cortajarena
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
GAZTELUKO UDALA (%0,28): Edurne Garcia Azurmendi
HERNIALDEKO UDALA (%0,57): Igaro Balda Izagirre
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76): Bakarne Otegi Jauregui
IRURAKO UDALA (%2,73): Jose Ramon Epelde Irizar
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa
LEABURUKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbieta
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro
OREXAKO UDALA (%0,20): Eneko Maioz Ganboa
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ALTZOKO UDALA (%0,65):
AMEZKETAKO UDALA (%1,58)
ANDOAINGO UDALA (%23,92):
BALIARRAINGO UDALA (%0,21):
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42)
ELDUAINGO UDALA (%0,39)
IBARRAKO UDALA (%6,95)
ORENDAINGO UDALA (%0,32)
VILLABONAKO UDALA (%9,61)

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2017ko ekainaren 6ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20170612.027 zenbakitik LE20171026.044 zenbakira.**
- 3. Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko apirilaren 12an egindako bilkuran, onartutako estatutuen aldaketa proiektuari onespena ematea.**
- 4. Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko irailaren 5eko bilkuran berri emandako 18/2017 ebazpenaren aurrean, Gipuzkoako ingurumen diseinu, finantzaketa, eraikuntza, operazio eta mantentze proiektuaren lehenengo faseko, proiektuaren finantzaketa tresnak eta plan ekonomikoaren behin betiko onarpenari, errekurtsua jartzea.**
- 5. Gipuzkoako Bazkundearekin sortzaile txikien hondakin arriskutsuen bilketarako Lankidetzak hitzarmena berritzea.**
- 6. Hiri hondakinen gaikako bilketarako komunikazio kanpainaren proposamen onespena.**
- 7. Mankomunitateko instalazio eta kamioien gordelekurako azpiegitura. Proposamenaren berri ematea.**
- 8. Galde-erreguak**

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari.

Lehendakariak Altzo, Amezketa, Andoain, Ibarra, Orendain eta Villabonako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetoako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALTZOKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

AMEZKETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ANDOAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

IBARRAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua

ORENDAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua

VILLABONAKO UDALA: Ordezkaria, Patxi Amantegi Zubiria.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2017ko ekainaren 6ko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20170612.027 zenbakitik LE20171026.044 zenbakira.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20170612.027	LE20170721.033	LE20170828.039
LE20170622.028	LE20170828.034	LE20170828.040
LE20170719.029	LE20170828.035	LE20170922.041
LE20170719.030	LE20170828.036	LE20171004.042
LE20170719.031	LE20170828.037	LE20171010.043
LE20170721.032	LE20170828.038	LE20171026.044

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko apirilaren 12an egindako bilkuran, onartutako estatutuen aldaketa proiektuari onespena ematea.

Lehendakariak honela azaldu du hitzez hitz: “Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan, bigarren aldiz legealdi honetan, estatutuak aldatzeko proiektua behin betiko onartu da. Zehazki, Batzar Nagusiaren saioetarako deialdien epeak aldatu dira. Lehen, hamabost egun balioduneko aurretiaz egin behar zen Batzarrera deialdia, baldin eta ez baziren urgentziazkoak. Orain, udaletan bezala, bi egun balioduneko aurretiaz eginda nahikoa da.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzarrean adierazi genuen ez zitzaigula egokia iruditzen aldaketa hau. Hor onartzen diren proiektuak, aurreproiektuak... bolumen handiko dokumentazioa izaten dute eta denbora gehiago behar da aztertzeko. Alderdi edo Mankomunitate guztiak ere ez gaude zuzendaritza batzordean ordezkaturik, eta batzordeak ere egiten ez direnez, ez daukagu modurik aurretik informazioa edukitzeko. Horregatik bi eguneko epearekin egitea deialdia ez zaigu bidezkoa iruditzen.

Estatutuak aldatzeko honako prozedura jarraitzen da. Lehenik, Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko Batzarrean onartzen da. Gero, bidezko iragarkia ikusgai jartzen da jendaurrean, interesdunek alegazioak egiteko aukera izanik. Ondoren Mankomunitate guztietako Batzarretatik pasa behar da eta Mankomunitate gehiengoek onartu behar dituzte.

Aldaketa horiek ez onartzea proposatzen dugu, ezetz bozkatzea estatutuen aldaketari, azken batean gure ordezkaritza politikoaren lana ezin dugulako burutu epe horietan.”

Jarraian, estatutuen aldaketa proiektua bozkatzeari ekin zaio, honako emaitzak atera direlarik:

• Aldaketaren alde: 3 boto (%43,25)

Irura (%2,73), Tolosa (%30,91) eta Villabona (%9,61)

• Aldaketaren kontra: 21 boto (%55,19)

Abaltzisketa (%0,54), Aduna (%0,77), Alegia (%2,85), Alkiza (%0,61), Altzo (%0,65), Amezketza (%1,58), Andoain (%23,92), Anoeta (%3,09), Asteasu (%2,49), Berastegi (%1,72), Berrobi (%0,93), Gaztelu (%0,28), Hernialde (%0,57), Ibarra (%6,95), Ikaztegieta (%0,76), Larraul (%0,42), Leaburu (%0,61), Lizartza (%1,05), Orendain (%0,32), Orexa (%0,20) eta Zizurkil (%4,89).

• Bozka zurian: boto 1 (%0,53)

Albiztur (%0,53)

Bozketaren emaitza ikusirik, Batzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko apirilaren 12an egindako bilkuran, behin betiko izaeraz onartutako estatutuen aldaketa proiektuari onespina ez ematea.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari eta GHK SAUri erabakiaren berri ematea.

4. Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko irailaren 5eko bilkuran berri emandako 18/2017 ebazpenaren aurrean, Gipuzkoako ingurumen diseinu, finantzaketa, eraikuntza, operazio eta mantentze proiektuaren lehenengo faseko, proiektuaren finantzaketa tresnak eta plan ekonomikoaren behin betiko onarpenari, errekurtsioa jartzea.

Lehendakariak honela azaldu du hitzez hitz: “Dakizuen bezala, lehenagotik ere, Tolosaldeko Mankomunitateak, prozeduran zehar eman diren pauso ezberdinak inpugnatu ditu, bai bideragarritasun azterketa, bai aurreproiektua, bai Baldintza Plegu Administratiboak eta baita kontratuaren esleipena ere.

2017ko irailaren 5ean, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak, 18/2017 Ebazpenaren berri eman zuen, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1

Fasearen diseinu, eraikuntza, finantzaketa, eragiketa eta mantentze proiektuaren finantzaketa tresnak eta plan ekonomikoaren behin betiko onarpenari dagokiona. Hori errekurritzeko bi hilabeteko epea dago eta orain, azaroaren 5ean, amaitzen da.

2017ko urriaren 16ko Txosten juridikoa bidali zaizue, eta bertan Ebazpen hau errekurritzeko oinarriak jasotzen dira. Horiek kontutan hartuz, jada tramitean dauden 390/17 eta 1160/17 errekurtsioak zabaltzea proposatzen da edo eta beste errekurtsio berri bat jartzea akordioa inpugnatzeko, aurrekoa onartuko ez balitz epaitegietan.”

Gaia azalduta, jarraian, proposamena bozkatzeari ekin zaio, honako emaitzak atera direlarik:

• Proposamenaren alde: 20 boto (%54,66)

Aduna (%0,77), Alegia (%2,85), Alkiza (%0,61), Altzo (%0,65), Amezketa (%1,58), Andoain (%23,92), Anoeta (%3,09), Asteasu (%2,49), Berastegi (%1,72), Berrobi (%0,93), Gaztelu (%0,28), Hernialde (%0,57), Ibarra (%6,95), Ikaztegieta (%0,76), Larraul (%0,42), Leaburu (%0,61), Lizartza (%1,05), Orendain (%0,32), Oresa (%0,20) eta Zizurkil (%4,89).

• Proposamenaren kontra: 5 boto (%44,32)

Abaltzisketa (%0,54), Albiztur (%0,53), Irura (%2,73), Tolosa (%30,91) eta Villabona (%9,61)

• Abstentzioa: 0 boto

Bozketaren emaitza ikusirik, Batzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- 2017ko urtarrilaren 31ean adostutako erabakiaren bitartez, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1 Fasearen diseinu, eraikuntza, finantzaketa, eragiketa eta mantentze proiektuaren esleipenaren aurka jarritako 390/17 errekurtsioa zabaltzea, Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko Lehendakariaren, 2017ko uztailearen 4ko, 18/2017 ebazpena, zeinaren bitartez Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1 Fasearen diseinu, eraikuntza, finantzaketa, eragiketa eta mantentze proiektuaren finantzaketa tresnak eta plan ekonomikoa, URBASER, S.A., MERIDIAM INVESTMENTS, SAS, CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L., ALTUNA Y URÍA, S.A. eta LKS INGENIERIA, S.L. enpresak osaturiko kontsortzioak eginikoa, behin betiko onartu zen.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratu errekurtsioen Foru Auzitegi Administrazioaren, urriaren 3ko, 3/2016 Ebazpenaren aurka jarritako 1160/17 errekurtsioa zabaltzea, Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko Lehendakariaren, 2017ko uztailearen 4ko, 18/2017 ebazpena, zeinaren bitartez Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1 Fasearen diseinu, eraikuntza, finantzaketa, eragiketa eta mantentze proiektuaren finantzaketa tresnak eta plan ekonomikoa, URBASER, S.A., MERIDIAM INVESTMENTS, SAS,

CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L., ALTUNA Y URIA, S.A. eta LKS INGENIERIA, S.L. enpresak osaturiko kontsorzioak eginikoa, behin betiko onartu zen.

HIRUGARRENA.- Donostiako 1 zenbakiko Auzi Administratibo Epategiak edo eta Justizia Auzitegi Nagusiko Auzi Administratibo epaiketa gelak, ez balukete onartuko errekurtsio hauek zabaltzea, orduan, Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Lehendakariaren, 2017ko uztailaren 4ko, 18/2017 ebazpenaren aurka, zeinaren bitartez Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1 Fasearen diseinu, eraikuntza, finantzaketa, eragiketa eta mantentze proiektuaren finantzaketa tresnak eta plan ekonomikoa, URBASER, S.A., MERIDIAM INVESTMENTS, SAS, CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L., ALTUNA Y URIA, S.A. eta LKS INGENIERIA, S.L. enpresak osaturiko kontsorzioak eginikoa, behin betiko onartu zen.

LAUGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari eta GHK SAUri onartutakoa jakinaraztea.

5. Gipuzkoako Bazkundearekin sortzaile txikien hondakin arriskutsuen bilketarako Lankidetzaren hitzarmena berritzea.

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “Urtero bezala, enpresa txikiek sorturiko hondakin arriskutsuen kudeaketa errazteko, Gipuzkoako Bazkundearekin 2017. urterako lankidetzaren hitzarmena sinatzeko proposamena heldu zaigu. Hitzarmenaren prezioa iaizko berbera da, 1.960 euro gehi Bez-a.”

Bozketa egin da, eta Batzarrak aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Gipuzkoako Bazkundearekin sortzaile txikien hondakin arriskutsuen kudeaketarako Lankidetzaren Hitzarmena berritzea 2017. urterako. Zerbitzuaren kostua da 1.960 euro gehi Bez-a.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Bazkundeari eta kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea.

6. Hiri hondakinen gaikako bilketarako komunikazio kanpainaren proposamen onespena.

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “ Artelatz enpresak eginiko proposamena bidali zaizue emailaz, gaikako bilketaren komunikazio kanpaina martxan jartzeko asmoz. Joan den urtean ekintza desberdinak egin genituen komunikazio kanpainaren barne, baina batez ere herri handietan ardatzu ginen eta adierazi zen 2017 urtean egin beharreko ekintza, landa eremuari edo herri txikiei begira izango zela bereziki.

Kasu honetan, landa eremuan kokatzeko estruktura finko batzuk proposatzen dira, totem informatzaileak balira modura. Edukiontzia dauden aldamenean kokatzeko edo beste eremu batean, egokiagoa ikusten bada.

Egurrezko paletekin egokitutako kuboak dira erakustoki gisa. 2 metroko altuera dute eta lehioxka batzuk bezala ditu alde bakoitzean. Bertan, edukiontzi jakin bati aipamena egiten zaio eta edukiontzi mota horretan bota daitezkeen hondakinak sailkatzen ditu.

Erabili nahi duten udalerrietara Mankomunitatearen bitartez eramatea proposatzen da. Estruktura hauek transpaleta batekin garraiatu daitezke, hori dela eta, behin lehenengo muntaia egin ondoren, Udal bakoitzaren esku gelditzen da, herrian bilketa puntu batetik bestera mugitzea.

Kanpainaren helburua, kalean, edukiontzien ondoan finko mantentzea estruktura hauek, herritarrak identifikatu ditzaten lehiotxo hauetan erakusgai dauden hondakinak, beraien zalantzak argituz aldi berean. Azken batean, etxeetan sortzen ditugunaren berdinak izango bait dira. Gainera, egitura bakoitzean informazio gehigarria egongo da paneletan azalduko dena.

Edukiontzi horia izaten da zailtasun gehien ematen duena, agian osagai ezberdinetako ontziak eta hondakinak botatzen direlako: plastikozkoak, brik motakoak eta metalezkoak. Horregatik, proposamen honetan ontzi arinen bilketari espazio gehiago eskaintzen zaio. Totem bat edukiontzi horiari buruz eta, bestea, papera, beira, organikoa eta errefusa edukiontzien inguruko informazioaz. Azkenean bi estruktura desberdin dira.

Kanpaina honen kostea, Ecoembes eta Ecovidrio enpresak urtero komunikazio kanpainetarako ematen diguten fondoetatik finantzatu da, beraz, Mankomunitateari ez zaio ezer kostako. Aurreko urtean beste herrietarako egin zen bezala, aurten ere, bi urtetako fondoak hartuko genituzke.

Kanpaina gustatzen bazaizue, jarraian egutegi bat egingo genuke, herri bakoitzak jakiteko noiztik nora edukiko dituen totem hauek. Udalerrri bakoitzak zenbat bilketa puntu dituen ikusita, horren arabera saiatuko gara kalkulatzeko, denek ere bilketa puntu bakoitzean egun kopuru antzekoa izan dezazuten.”

Ondoren bozketa egin da, eta Batzarrak aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Hiri hondakinen gaikako bilketarako komunikazio kanpainaren proposamena onartzea.

BIGARRENA.- Artelatz Ingurumen Zerbitzuak enpresari erabakiaren berri ematea.

7. Mankomunitateko instalazio eta kamioien gordelekurako azpiegitura. Proposamenaren berri ematea

Lehendakariak adierazi die batzarkideei, Mankomunitatea osatzen duten udaletara mezu bat bidali dela, Tolosaldeko Mankomunitatearen basea egin ahal izateko, partzelak, eraikinak edo eta instalazioek bete beharko lituzkeen gutxieneko ezaugarriak adieraziz. Horren arabera, eskualdean egon litezkeen aukera desberdinak aztertuko bait dira.

Adunatik proposamen bat bidali da Mankomunitatera baina, hemendik urte bukaera aldera arte, edo ikusten den arte, beste proposamen batzuk ere aurkeztu daitezke. Ondoren, aztertu egin beharko dira, bai kokapen aldetik, diru aldetik, partzelaren ezaugarrien aldetik eta azken batean alde guztietatik, jasotako proposamen horien artean zein den egokiena Tolosaldeko Mankomunitatearen basea egiteko.

Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

8. Galde-erreguak.

Gai zerrendan barneratu ez diren honako gai hauek aipatu dira:

8.1. Biotrituradoraren egoera

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “ Ute Tolosaldea enpresarekin izenpentuta daukagun zabor bilketako kontratu honetan, jada denok dakizue kimaketa adarrak txikitzeko makina bat daukagula. Kontratuak 10 urte egin dituen bezala, makina horrek ere 10 bete ditu. Oso erabilia dago makina eta nahiko egoera txarrean aurkitzen da motor aldetik, eta mozteko hortzak ere nahiko kamutsak dauzka. Piezak ere oso zaila da lortzea, jadanik marka horren hornitzailea ez baitago.

Makina honi orain gutxi ere mantentze gastu bat egin diogu. Horrela ari gara erabat egiten baina azkenean, probatzen dutenak, azkeneko txandakoa Alegiako Udala izan da, ez dute makina hori nahi zeren dagoen egoeran arriskutsua egiten da bere erabilera. Ikusirik inor ez dagoela gustura orain dugun makinarekin, berri bat erostea ari gara baloratzen, zaharra ordezkatzeko.

20:00etan Berastegiko Udaleko ordezkaria irten da.

Arrizabal etxeak eskaini digu makina bat hemeretzi mila euro inguru balio duena. Orain daukaguna baino pixka bat txikiagoa da baina kapazitate berdinekoa. Hala ere, lehenengo probatu egin behar dugu nola lan egiten duen ikusteko.”

8.2. Mankomunitateko administrariaren lanaldia

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “Mankomunitateko administrariak, berez plazaren titularra denak, amatasun baja baten ondoren, urte beteko eszedentzia bat eskatu zuen. Onartua izan zen eskaera hori, eta horrela, 2016ko azaroaren 26an hasiera eman zion eszedentziari eta datorren azaroaren 25ean izango du amaiera.

Hori amaitu ostean, azaroaren 26an bere lanpostura itzuli beharko luke lanaldi osoan, baina haurraren zainketarako lanaldiaren murrizketa eskatu du. Hala ere, oraindik ez du zehaztu zenbat orduko murrizketa izango den.”

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko 20:10ak direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA